

ERNESTO ELEFANTEA

Testua eta ilustrazioa: ANTHONY BROWNE

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 27 x 23 cm. 32 or. 15 €

Ernesto elefantea (euskara)

ISBN 978-84-9172-209-0. Gaur egungo klasikoak.

Ernesto el elefante (gaztelania)

ISBN 978-84-1343-050-8. Clásicos contemporáneos.

Ernesto o elefante (galegoa)

ISBN 978-84-1343-049-2. Tras os montes.

Ernest l'elefantet (katalana)

ISBN 978-84-18558-05-4. Clàssics contemporanis.

Ernesto o elefante (portugesas)

ISBN 978-989-749-136-8. Clássicos contemporâneos.

Ernesto bere amatxorekin eta taldeko besteekin bizi zen.

Egunero ibili eta jan eta edan egiten zuten. Gauez, lo egiten zuten.

Ernesto zorionsua zen, ibili eta jan eta edan eta lo,

baina azkenaldian hausnartzen hasita zegoen zer gehiago ote

zegoen bizitzan. Egun batean, oihan baten ondotik pasatu ziren.

–Zer da hori? –galdetu zion Ernestok bere amatxori.

–Oihan bat besterik ez –erantzun zuen amatxok...

Ernesto oihanean galdu da eta, antza denez, hango inor ez dago prest elefante-taldera bueltatzen laguntzeko.

Ez piztiarik indartsuenak, ez basatienak, ez azkarrenak ere egiten du elefantetxoari entzuteko zirkinik txikiena; aitzitik, mespretxuz tratatzen dute.


Harrigarria bada ere, ordea, animaliarik txikienak eskaintzen dio behar duen laguntza eta aditzea.

Istori honetan, Anthony Brownek islatzen ditu protagonistaren izaera ausarta, haurtzaroak berezko duen jakin-mina, baina baita beldurra ere, konturatzen denean eta arriskuetatik babesten duen helduarengandik urrun eta bakarrik dagoela.

Solaskide dituenen enpatia faltak gizarte indibidualista eta besteren arazoekiko sorgorra erakusten du.

Gauzak, ordea, ez dira diruditena, eta itxuraz ahulen eta hutsalena direnak gertatzen dira adoretu eta eskuzabalenak, trukean ezer eskatu gabe

Bere ibilbide zabal eta entzutetsuan zehar ezaugarri izan duen xehetasunetarako joerari eutsiz, testuinguru koloretsu exotikoa eta pertsonaia zehazki karakterizatuak dauzkan obra bat aurkezten du egileak, kontakizunean zehar erakusten diren emozio sortarekin bat eginez.



- **Gaia:** sentimenduak eta emozioak.
- **Gomendatutako adina:** 3 urtetik aurrera.

■ **Alderdi azpimarragarriak:** oihaneko animaliak, natura; elkartasuna, lankidetzara, babes beharra, eskuzabaltasuna; «Kezkamuxelak», «Urdaburutarra», «Nola sentitzen zara?», «Osteratxo bat parkean», «Basoan barrena», «Gorila bat» eta besteren egile berarena.

- **Liburu-aurrezapena:**


<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/ernesto-el-elefante-c>

Anthony Browne

(Sheffield, Ingalaterra, 1946)

Leeds College of Art delakoan graduaturik, diseinu grafikoan espezializatu zen. Haurrentzako ilustrazioak egiteko zaletasuna zorion-txartelak diseinatzen zituen garaitik dator. Browneren estiloan antzeman daiteke margolari surrealistikiko, eszena onirikoekiko eta elementu bitxiakiko interesa. Bere ibilbidean jaso dituen sari aipagarrienak dira Kate Greenaway domina, Kurt Maschler saria eta Children's Laureate 2009 domina. Hala ere, guztien gainetik, Hans Christian Andersen saria dago, bere obra osagatik 2000. urtean eman baitzieten. Sari hori jasotako lehen idazle britainiarra da, 1956az geroztik. Itzal handieneko egile ingelesetarikoa bat da, batez ere irakurtzeko, begiratzeko eta lengoia plastikoarekin erlaxatzeko bide berriak zabaltzeko ahaleginagatik. Kritikarien arabera, haren lanak kultur eta arte erreferentziak betetako unibertsoa sortu du, edozein adinetako irakurleak testua osatzeko eta interpretatzeko duen adimena probatzen duten ikus-arrasto eta giltzarri ugari erakusten baitu.

<http://www.anthonybrownebooks.com>



Ernesto, bere amatxorekin eta taldeko besteekin bizi zen. Egunero ibili eta jan eta edan egiten zuten. Gauez, lo egiten zuten.



Ernesto zorionsua zen, ibili eta jan eta edan eta lo, baina azkenaldian hausnartzen hasita zegoen zer gehiago ote zegoen bizitzan. Egun batean, oihan baten ondotik pasatu ziren.



–Zer da hori? –galdetu zion Ernestok bere amatxori. –Oihan bat besterik ez –erantzun zuen amatxok...